

Zorionak eta urte berri on!





ODONTOLOGIA ZENTROA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA

HORTZ ESTETIKA

AHO KIRURGIA

INPLANTEAK

PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA

PERIODONTZIA

ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA

ERRADIOGRAFI PANORAMIKOAK

TELERADIOGRAFIAK

3D SCANNERRA

AHO BARRUKO SCANNERRA

KIRURJIA NABEGATUA

ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaihernani@gmail.com

Maite Otaño
Gurutzeta baserria, Urnieta

Etxebak

Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi
ditzagun gure baserritarren
produktuak.

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Hamar bai, hamaika ez

Abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean gehienez 10 pertsona elkartu ahalko dira bizikideak ez badira.

URUMEA FAMILIA BILERAK

Espainiako Osasun Ministerioak eta Autonomia Erkidegoek abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean gehienez 10 pertsonarekin bilerak egiteko baimena ematea adostu zuten eta LABik neurri horiek berretsi zituen asteazkenean, baita etxeratze-agindua 01:30etara arte luzatzea ere, Gabon gauean eta Urtezahar gauean. Gainera, Gabonetako jaiek koronabirusaren pandemiaren duten eragina murrizteko, ez dute autonomien arteko mugikortasuna baimenduko, salbuespena abenduaren 23tik 26ra eta abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra arte izango dira, familia berrelkartzea denean izan ezik, hau da, senideak edo gertukoak ohiko bizilekura joatea.

Akordioak nahitaez bete beharrekoak dira

Hala erabaki zuten Osasun Publikoaren Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluan, eta Salvador Illa ministroak iragarri zuen akordioak nahitaez bete beharrekoak direla.

Akordio «zabala eta oso adostua» lortu zen erkidego eta Gobernuaren artean Lurralde Arteko Kontseiluan, nahiz eta, eboluzioaren arabera alda daitekeen. Gero LABik baieztatu zuen. Madrilan eta Kataluniaren babesik gabe erkidego guztien babesa izan zuen akordioak. Osasun sailburu askok bat egin zuten testuarekin, baina euren lurraldeetan murriztaileagoak izango direla ohartarazi zuten.



Aurten platerak jartzen lan gutxiago egongo da.

Gehienez 10 pertsona ospakizunetan, bizikideak ez badira

Gabon, Eguberri, Urtezahar eta Urteberri ospakizunetarako neurrien dokumentuaren arabera, bilerek 10 pertsonako gehieneko muga izango dute, bizikideak ez badira behintzat, eta gomendio gisa ez dira bi bizikidetza-talde baino gehiagokoak izango, eta arreta eta zaintza berezia izan beharko da egoera ahulean dauden pertsonekin.

Hala, hasierako proposamenean bileren muga sei pertsonakoa zen bitartean, Osasun Sailak zenbait autonomia-erkidegoren eskaerei erantzun die, hala nola

Kataluniari, Euskal Autonomia Erkidegoari, Madrilgo Erkidegoari eta Valentziako Erkidegoari; izan ere, neurri gehiago malgutzea proposatu dute, eta Gaztela eta Leoni, esaterako, neurriak gogortzearen alde egin dute. Bestalde, oportetara etxera itzultzen diren ikasleei interakzio sozialak mugatzea eta 10 egun lehenago prebentzio-neurriak zorroztea gomendatzen zaie.

Etxeratze-agindua 01:30etara arte luzatu da etxera itzultzeko ez gizarte-topaketetara joateko Etxeratze aginduari dagokionez, Lurraldearteko Kontsei-

luak erabaki zuen 01:30ak arte malgutzea Gabon gauerako eta Urtezaharrerako, eta ez 01:00ak arte, hasiera batean Osasun Sailak proposatu bezala. Etxeratze-agindua luzatzea ohiko etxebizitzara itzultzeko bakarrik aplikatuko litzateke, eta inolaz ere ez gizarte-topaketetara joateko. Illa ministroak bide publikoan edatea eta jatea saihesteko agindua berretsi zuen, horretarako prestatutako leku batzuetan izan ezik.

Erabakiak osasuna nahi du babestu eta beste alde onak ere baditu Osasunaren aldetik neurri hauek

onak direla ezin da zalantzan jarri, baina familia osoa ez elkar-tzeak ekartzen dituen penak ere bere alde ona badute.

Hasteko bazkari eta afariak prestatzen lan gutxiago. Beti dago baten bat lan haundiena hartzen duena eta horrek jende gutxiagorentzat egin beharko du lan.

Mahai gainean plater gutxiago jarri beharko dira. Bidaian edo mugikortasunean ere aurreztuko da. Eta agian garrantzitsuenak, familien arteko liskarrak eta eztabaida sutsuak ekidingo dira. Noski koinatu oro jakintsu horren jakituria ere agian aurten sahiestu dezakete askok. **K**

AMAIA
OKINDEGIA - GOZOTEGIA
Amaitz Uitzu Anton
Zorionak eta urte berri on!!
Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)
Gabon jai zoriontsuak
opa dirakizuegu
ADARRAGA
Gozotegia
Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI
ondo pasa gabonetan!
ANTZIOLA
OKINDEGIA

«Hiru unitate familiar desberdinetako hamabost pertsona inguru biltzen ginen eta aurten gehienez zortzi izango gara»

Goñi Iradi sendia Gabonetan, Urtezaharretan eta Errege Egunean elkartzen dira, baina aurten denak ezingo dira elkartu bi taldetan banatuz. «Landetxetan elkartzen ginen azken urteetan eta orain bi unitate familiarretan bilduko gara».

URUMEA FAMILIA BILERAK

Goñi Iradi sendia urtero elkartzen dira gabonetan, Gabon, Urtezahar eta Errege ospakizunetan, baina aurten planak eta antolatzeke era aldatu beharrean aurkitu dira murrizketen ondorioz. «Hamabost pertsona inguru biltzen gara, hiru unitate familiar desberdinetakoak eta aurten ez da posible izango. Berrantolatatu egin behar izan dugu».

Beraz alde batetik bi unitate elkartuko dira eta hirugarrenak bere aldetik egingo ditu bazkari-afariak. «Honela ez gara hamarretik inoiz pasa-

tzen. Zortzi elkartuko gara alde batetik eta beste bost edo sei bestetik. Horrela izan beharko du aurtengo gabonetan».

Familia askok gainera egun hauek etxetik kanpo ospatzen zituzten eta hori ere aldatu da. «Hasteko elkarteak itxita daude. Jende asko biltzen zen, batez ere Errege egunean, baina baita Eguberri gauean, Gabon egunean, Urtezahar gauean eta Urteberrian. Hori ez da posible izango. Errege egunean hogeiren bat izaten ginen gainera Txantxangorri elkarteetan. Orain burutik pasa ere ez zaigu egiten horrelako zerbitzuak».

Kanpora bidaiatzen dutenak

ere badira. «Gu urrutira ez, baina azken urteetan landetxe desberdinetara joan izan gara egun hauetan. Nafarroan asko daude Baztan, Malerrekan, Bortzirietan... eta mugikortasuna bertan behera geratu da erkidego desberdinen artean. Hori ere ez da posible izango. Gainera hor bi debeku elkartzen dira, aipaturiko erkidegoen arteko mugikortasun debekua eta hamar pertsonetik gora, unitate desberdinetakoak, ezin elkartzearena».

Datorren urtera arte, gutxienez, itxaron beharko dute berriz ere familia guztia elkartzeko.



Orain dela bi urteko argazki hau ezingo da errepikatu aurten.

«Gabon gauean 45 senide inguru elkartzen gara, baina aurten ezinezkoa izango da; bakoitzak bere etxekoekin ospatuko du»

Etxabe familiakoek gabon gau berezia izaten dute urtero; anai-arrebak, lehehengusuak eta lehengusinak, aiton-amonak eta guraso guztiak elkartzen dira Goiko-Lastola sagardotegian. «Egun polita izaten da, pena izango da aurten guztiok ez elkartzea».

URUMEA FAMILIA BILERAK

Etxabe sendiak gogoz itxaroten ditu urte osoan abenduko egun hauek. Izan ere, familiako kide guztiak elkartzen dira baserrian, gabon gaua ospatzeko. «Normalean 45 inguru biltzen gara; lehen baserrian elkartzen ginen, baina gero eta gehiago garenez, sagardotegian egiten dugu orain», kontatu dute. «Baserriko sukaldean egiten genuen, baina familia haundituz doa eta Goiko-Lastolan elkartu gara azkenekoetan».

Afaria ez ezik, gabonetako giroan sartzeko eta motorrak berotzeko festa antolatzen

dute baserrian Etxabetarrek. «Amaiak pelukak eta apaingarriak prestatzen ditu eta musikarekin giroa animatuz doa, afaltzen hasi aurretik».

Urtero ospatu ohi dituzte gabonak horrela, eta familia arteko «harremanak sendotzeko», asteburu pasak ere egiten dituzte. Azkeneko bi urteetan egin dute hori. «Aurreko urtean lehehengusuak eta lehengusinak elkartu ginen Askizun, eta gurasoak igandean etorri ziren; egun politak izan ziren guztiontzat, ederki egon ginen elkarrekin».

Hala ere, aurten egoera ez da betikoa izango eta, beraz,

Etxabetarrek planak aldatu behar izan dituzte. «Bakoitzak bere etxekoekin afalduko du aurten; egoerak horrela bultzatuta, hori erabaki dugu denon artean». Kontatu dute, «pena» dela horrela egin behar izana; «baina ia lehengusu guztiek umeak izan dituzte eta batzuk 8 kide dira etxean; hortaz, ezinezkoa da familiako bi etxetako senideak elkartzea ere».

Dena den, datorren gabonak betiko moduan ospatzea espero dute Etxabetarrek. «Aurten ezinezkoa izan bada ere, betiko moduan gogotsu elkartuko gara berririo egoera hobetzen denean!».



Etxabe familiako senideetako batzuk, Askizun.

AR
TOLA
LA
HARATEGIA

Gabon
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Andre Kale 20
· Hernani ·
Tlf.: 943 05 54 89



Amaia
arrandegia
Zorionak
eta
urte berri
on!

ESKAERAK ETXERA
ERAMATEN DITUGU

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI



Garai
zailetan ere,
elkar animatuz
jarrai dezagun.

Zorionak
eta urte
berri on!



Atzieta kalea 41

Gabonetan, kaleak janzten dituzten erakusleiho ikusgarriak aurkitu daitezke, bailaran zehar

Gaur egun, Urumea bailaran badira urtero gabonetan etxea goitik behera apaintzen duten hamaika familia, horrez gain, herriko kaleei ikusgarritasuna ematen dieten hainbat erakusleho ere badaude.

URUMEA GABONETAKO APAINGARRIAK

Gabonetan etxea apaintzeko ohitura izaten da, etxeko txokoak hainbat koloretako argiz betetzen dira, apaingarri ugari jartzen dira, etxe barruan zein kanpoan edo denden erakuslehoetan, eta gabonetako zuhaitzak ere etxe askotan ez du hutsik egiten. Batzuek betiko pinua aukeratzen dute eta etxeko guztien artean jartzen dizkiote bolatxoak. Beste batzuek, berriz, originalak izatea nahia-goa dute, eta imajinazio haundiarekin apaintzen dute zuhaitza. Horrez gain, herritar askok etxeko sarreran jaiotza jartzen dute urtero. Goroldioa bildu eta piezekin irudikatzen dute Jesusen jaiotza. Bertan kokatzen dituzte errege magoak eta Olenzero, eta argitxo batzuk jartzen dizkiote inguruan, gabon giroan goxoago sartzeko asmotan.

Esan bezala, hamaika aukera daude gabon giroan sartzeko eta etxea apaintzeko. Estilo tradizionala gustatzen zaienek, gabon klasikoarekin zerikusia duten koloreak aukeratzen dituzte; alegia, txuria, gorria eta berdea, gehienbat. Gabonak zertxobait modernoagoak egin nahi dituztenek, aldiz, kolore leunak, berde naturala edota estilo nordikoarekin antzekotasuna duten piezak aukeratzen dituzte pinua apaintzeko. Horrez gain, batzuek gustatzen zaie zuhaitza apaintzea kolore biziez, urrearekin, zilarrearekin eta tertziopeloarekin. Eta azkenik, badira pinua bolatxoekin apaindu ordez, bestelako irudiekin edo panpinekin apaintzeko hautua egiten dutenak.

Esanak esan, aipatzekoak

dira hemen Urumea Bailaran urtero erakuslehoia apaingarriz jartzen dituzten denda eta komertzioak.

Hernanin, hamaika erakuslehoi ikusgarri eta berezi

Hamaika erakuslehoi aurkitu daitezke bailaran zehar, bakoi-tzaren ukitu pertsonalarekin. Batzuk, originalak dira, beste batzuk sortzaileak, kaleko zein etxeko materialarekin egindakoak ere badaude. Eta tarteka badago baten bat, aldarrikapena sustatzen duena. **K**



Gabonak datozela antzematen da, Hernaniko komertzioen erakuslehoietako kolore eta apaingarriek hala erakusten dute.

Antzinako Egiptotik, Urumea bailarara

Aspalditik datorren kontua da gabonetan etxea apaintzea eta argiz betetzea. Antzinako Egipton hasi zen tradizioa hau eta jarraipena izan du gaur egun arte, hain justu.

URUMEA GABONETAKO APAINGARRIAK

Gabonetako apaingarriak, nondik datoz?

Gabonetako apaingarri kontu hau, antzinako Egiptotik dator, izan ere, neguko solstizioan hainbat landare hartu eta etxera eramaten zituzten. Kolore berdea, esperantzaren ikurra zen, eta horrez gain, gau hotz eta luzeen erosotasunaren sinboloa zela ere esaten zuten. Eguzkiaren jainkoa zen Ra, eta hark zituen gaixotasunak naturak sendatzen zizkiola esaten

da. Hori horrela, egipziarrek, solstizioa bizitzako sinbolo gisa hartzen zuten.

XVI.mendean, eliza alemanetan eskaintzen ziren antzerkietan, Adan eta Evaren pasadizoa irudikatzen zituzten zuhaitzak agertzen ziren. Eta hauek apaintzeko eta sinbolismoa emateko, fruta eta intxaurrak gehitu zitzaizkien. Denboraren poderioz, kristauek, zuhaitz hauek etxean sartu zituzten, apaindu eta Jesusen jaiotza ospatzen zuten gabonetan.



XVIII.mende hasierako ilustrazioa. Luterok familiarekin gabonetan.

Mende hauen tartean, bazen Luterori buruzko elezahar bat. Elezahar honek zioen, Luterok etxera bidean zihoala, izar iheskor bat ikusi zuela zeruan. Luterok hunkiturik, bere etxe barruan ere ikusitako dizdira hori irudikatu nahi zuen. Hori horrela, etxe ondoko lorategitik zuhaitza moztu, eta kandela txikiak gehitu zizkion, izar iheskorra irudikatzen asmotan.

XIX.mendea eta argiak

Gabonetako argiztapen eta dekorazioaren historia, ez litzate-

ke berdina izango Thomas Edison eta Edward H. Johnsonen ekarpenik gabe. Edisonen lagunak, Edwarrek, gabonetako zuhaitzak are ikusgarriagoak egiteko aukera bat ikusi zuen, eta 1882an, soka baten bidez, 80 argi gorri, zuri eta urdin batu zituen, gabonetako zuhaitzaren inguruan jartzeko.

Ia 40 urte ondoren, 1923an, bonbilak modu ofizialean erabili ziren lehen aldiz zuhaitz bat apaintzeko. Guztira, 21 mende daramatza gizarteak, gabonetan zuhaitzak jartzen.

Arrobi estatua

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
2021 zoriontsua izan dezazuelat

Oporrengatik itxita abenduaren
21etik urtarrilaren 7ra.

Santa Barbara cruzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobiestatua.com

www.arrobiestatua.com



urteberri on!!

AZKEN KILOMETROA

943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

Bikain
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

Urte berri on!

20120 Hernani



Originaltasunik ez da falta Hernaniko dendetan. Olentzero, Mari Domingi eta astoak argi daukate.



Jakiak ere erabiltzen dituzte askok, denda apaintzeko.



Jostailuekin batera, gabonetako zuhaitza jarri dute, txikien interesa pizteko.



Kalean dauden hosto edo zuhaitz zatiak aprobetxatu daitezke, denda apaintzeko.

«Garai ilun honetan, argia behar dugu»



BERRIAK
Hernani

**BIZI, EROSI
ETA MAITE
HERNANI**



HERNANI

BABESTUTAKO EDUKIA

Gabonetan ohikoa izaten da kaleetan argiak jartzea, kaleari nolabaiteko indarra emateko, eta gabonak direla iragartzeko. Hala ere, bizi dugun pandemia honetan, jende askok argiak jartzearen aurkako jarrera azaldu du, «gastu asko dela» argudiatuz. Honen aurrean, Berriak Elkarteak dio, gabonetako argiak, elkarrekin ordaintzen dituela, eta kontsumoaren kostua berriz Udalak, eta gehitu du «ez duela gastu asko suposatzen».

Aurten bizi dugun osasun alarma honetan, Berriak Elkarteak, Hernanin argiak jartzea erabaki du, bi arrazoiengatik. Lehen, «uste dugulako mundu guztiak duela

eskubidea lan egiteko. Gabonetako argiak jartzen jende askok egiten du lan, eta gure kasuan, kaleetako argiak Hernaniko enpresa batek jartzen dituzenez, lagundu egin nahi dugu».

Beste arrazoi batengatik ere egin dute gabonetako argien aldeko apustua Berriak Elkarteak. Izan ere, Elkarteak uste du, «jendeak poztasun bat behar duela, argitasun bat behar du kaleak bizi dugun garai ilun honetan». Azken arrazoi hau, «faktore emotiboengatik da, baina uste dugu beharrezkoa dugula, eta urte honetan gainera, inoiz baino gehiago, ikusita zein den egoera». Kaleetako argi hauek gainera, «oso kontsumo baxukoak» direla ere jakinarazi du.

Beraz, aurten kaleetan argiak badaude, «herriari argitasuna emateko helburuarekin» izan dela argi utzi du Berriak Elkarteak.

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Zorionak eta urte berri on!

Tomas Alba, 11. Astigarraga Telf: 943 55 23 67



**Zorionak eta
Urte Berri On!**

www.brintza.com

URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel.: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92



www.dekolanak.eus

Materialen salmenta
Gremioen lan taldea
Berrikuntzak

Kale Nagusia, 41 • HERNANI
Tel. 943 336 083 • 653 739 340
info@dekolanak.eus



Gabon berezi hauek ondo pasa ditzazuela!

Olentzerok urteroko zitari eutsiko dio

Arano, Astigarraga, Ereñotzu, Goizueta eta Hernanira etorriko da, Mari Domingirekin batera, abenduaren 24an aurren gozamenerako opariak banatzera, baina kalejirarik egin gabe.

URUMEA GABONAK

Ume askok galdetzen dute ea aurten Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoak etorriko diren edo konfinatuta egongo diren Koronabirusaren eraginez. Lasai, aurten ere opariak banatzen ibiliko dira eta urtean zehar ongi portatu bazara zurea izango duzu. Ikatza ere prest dute badaezpada ere.

Hori bai, badakite ongi 2020a pandemiaren eraginez zein zaila izan den eta beraiek ere neurri artean ibiliko dira gurean. Hala ere, Olentzero eta Mari Domingi ezingo ditugu besarkatu, ez eta beste urtetan bezain beste beraingana hurbildu. Kalejirarik ez da egingo, debekatuta daudelako eta tamalez Errege Magoek ez dute kabalgatariak ospatuko urtarilaren 5ean.

Atsegindegin Olentzero eta Mari Domingi ikusteko izena eman behar da

Covid-19ak bultzatutako egoera dela eta, Olentzero eta Mari Domingi ez dira Hernaniko Plazan egongo urtero moduan. Ttarla Dantza taldeak antolatzen du ekitaldia eta aurten neurri bereziak hartu dituzte ekitaldia aurrera eraman ahal izateko.

Hau horrela, abenduaren 24ean Atsegindegin egongo dira eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara.

Bertan haurren gutunak jasoko dituzte eta urtero moduan opariak eta goxokiak banatuko zaizkie, baina ezin izango da argazkirik atera egungo egoerak eskatzen dituen neurriak betetze aldera.

Haurren pilaketarik gerta ez dadin, bakoitzari ordu bat emango zaio mezu baten bidez eta hitzartutako orduan azaldu beharko dute (mezu elektronikoa jasoko dute, adi egon zaitezte).

Biterin eman behar da izena abenduaren 18 edo 21ean, Olentzero ikusteko

Hernaniko Aratz eta Txirrita eskolan bertan beteko dira izen emateak. Beraz, bi ikastetxe horietako ikasleek ordua bertan hartu beharko dute. Horretarako, ezinezkoa suertatzen bada ordu zehatz batean azaltzea, ikastolako irakasleari papera eskatu eta entregatu egin behar da. Abenduaren 16ra arte dago horretarako epea.

Hernaniko beste ikastetxeetako eta bertako ikastetxeetatik kanpo ikasten duten haur hernaniarrek ordua Biterin eskatu dezakete. Horretarako bi egun jarri dira. Abenduaren 18an, ostiralean, eta abenduaren 21ean, astelehenean, 18:00etatik 20:00etara hurbildu behar da Biterira.

Eskolek, Olentzerorekin, egiten dituzten ohiko kalejira guztiak bertan behera geratu dira ez da bat bera ere aterako Hernanin. Hori bai, ikastetxeetako getan prestatu dituzte ekintzak Langilen eta Aratz ikastetxeetan esaterako. Azken honetan bideo bat grabatuko dute dantza eta abestiek. Abenduaren 18an izango da hori, eta egun horretan bertan Plaza Berriko gaztain postura hurbilduko dira gaztainak erostera. Santo Tomas ospatzeko egiten duten eguna baliatuko dute horretarako.



Olentzero Astigarragan Erribera kulturgunean egongo da.

Astigarragan, Erribera kulturgunean egongo dira eta gonbidapenak jaso behar dira astelehenetik ostiralera

Astigarragan, Xaguxar elkar-teak antolatzen du Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Aldaketak egongo dira aurten eta kalejirarik gabe Erribera kulturgunean egongo dira, abenduaren 24an goizeko 10:00etan eta 11:30etan. Olentzero eta Mari Domingi gutunak, segurtasun neurri guztiekin, bertan jasoko dituzte. Beraz, astigartar umeak bertara hurbildu beharko dute.

Bertaratzeko gonbidapena behar da eta eskuragarri izango dira Erribera kulturguneko harrian abenduaren 14tik abenduaren 18ra arte.

Jende pilaketak sahiesteko Olentzero eta Mari Domingi eserita kalean ibili gabe

Goizuetan ere Olentzerok hiru bider egiten zuen kale buelta. Goizean Xalto eskolako guraso eta ikasleekin, Gurasoak elkar-teak antolatuta; eta herrian barrena ibili ondoren, Plazan bukatzen zuen, salda hartu eta hamaiketako eginez. Aurten ez da bueltarik egongo. Hori bai, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera egingen da. Frontoian elkartuko dira haurrekin, haien gutunak jaso eta goxokiak banatzeko.

Hernanin, Goizuetan bezala presoen aldeko manifestazio eta kontzentrazioan Olentzeroa espetxeratua ateratzen da. Aurten

zer egin oraindik erabakitzen ari dira.

Errege kabalgatariak gabe Hernanin eta Goizuetan

Aurten egongo ez direnak gabonetan Errege kabalgatak dira. Bailaran, Goizuetan eta Hernanin antolatzen dira, baina ez ditugu Errege Magoak kaleetan zehar ikusiko.

Berriak elkar-teak, Hernanin, Erregeak eta Olentzero jarriko dituzte Kardaberaz kaleko egoitzan eta bertan gutunak entregatu daitezke.

Hori bai, gauean ez ahaztu janari eta edaria Erregeei jartzeari, nahiz eta kabalgatariak ez egon gauean zehar opariak jartzeko ibiliko baitira. **K**

IMANOL KAMIO
musika eskola

musika eskola
DOINU-ZALE
 KARABEL AUZOA, 4 - behe ezkerre
 943 33 12 33

Solfeoa
Pianoa
Akordeioa
Panderoa
Bateria Modernoa

Biolontxelo

Tronpeta
Trikitixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62
Gabon gorontsuak opa dizkizuegu.
Eguberri On!

Eskerrik asko

Iturriaga kalea, 12 - Tel: (943) 33 02 91

Zorionak eta Urte Berri On!
DORRONSORO
OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
 Akarregi poligonoa 14A-2
 DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
 Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
 Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
 Lizeaga kalea 4
 OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
 Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
 Jaiegunetan: 7:00-14:00

Olentzero eta Mari Domingi maiteak,
_____ naiz, ____ urte ditut, eta _____-n bizi naiz...





AKOI
HORTZ KLINIKA

%20ko
DESKONTUA

hortzetako
karilletan!

ABENDUAN BAKARRIK



ESKATU HITZORDUA!

www.akoi.eus
Andre kale 50 - 1ºD
943 55 44 55 / 688 769 675
Emaila: kaixo@akoi.eus

Astelehen, astearte eta ostegunak:
8:00-20:00
Asteazken eta ostiralak:
8:00-16:00



Feli
1945

~ Dekoradorak ~
ESTITXU eta GEMA ANDUEZA
Etxe apainketan adituak
Karobieta 1, 20120 Hernani
943 33 05 64
felidecoracion@gmail.com



Eukene
Jantxidenda
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!



Eukene
Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

Animatu Olentzero eta Mari Domingi etxean egitera, eta parte hartu Kronikaren lehiaketan

Abenduaren 24ra arte dago panpinen argazkiak bidaltzeko aukera. Baloratuko dira originaltasuna, sormena eta etxeko edo birziklatutako materialekin egindakoak izatea.

URUMEA
OLENTZERO ETA MARIDOMINGI

Gabonetan sartzeaz gauden honetan, etxea apaintzeko gogo izaten da, zuhaitza ipiniz, argi ezberdinekin etxeari argia emanez... Beste hainbatek, Olentzero edo Mari Domingi jartzen dute etxeko sarreran, otarra, sagardo botila eta *Kronika* eskuetan duela. Askok eskuz sortzen dute, etxean aspalditik hautsez beteta dauden trapu zahar horiek aprobetxatuz. Esanak esan, hamai-ka modu daude gabon giroan sartzeko eta Olentzero edo Mari Domingirekin etxea apaintzeko. Hori horrela, *Kronikak* lehiaketa jarri du abian, eta saria eramango du Olentzero edo Mari Domingi originalenak. Biak elkarrekin ere egin daitezke, ez du zertan panpin bakarra izan behar.

Oinarria da familian, lagunartean edo bakarka, nahi moduan, Olentzeroren edo Mari Domingiren panpina egitea. Sormena aske utzi eta nahi den moduan egin daiteke, ondo pasatzea delako helburu nagusia. Ez dago arau finkorik; alegia, tamaina edo material zehatzik. Erabili daitezke mota askotako arropak, trapu zaharrak, plastikozko botilak, birziklatutako papera, lastoa, plastilina edo zuhaitzetatik erortzen diren hostoak. Hitz gutxitan, gakoa da imajinazioa martxan jartzea. Gogoratu Olentzerok eta Mari Domingik dituzten ezaugarri nagusiek: txapela, otarra, xextoa, sorgin-txapela, eta abar. Noski, osagarriak ere aldatu daitezke, proposamen berriak aurkezteko; norberak gustuko duen eskulana egitea da *Kronikak* antolatutako lehiaketaren xedea.

Abenduaren 24a, argazkiak bidaltzeko epemuga

Gaurtik hasita abenduaren 24ra arte dago aukera Olentzero edo Mari Domingiren panpinen argazkiak bidaltzeko. Egin beharrekoa da panpina sortu, argazkia atera eta *Kronikako* emailera bidali: kronika@kronika.eus. Esan bezala, ez dago araurik, baina baloratuko da originaltasuna, sormena eta etxeko edo birziklatutako materialekin egindako panpina izatea.

Parte hartzen duten herritar guztien artean sarituko da *Latxe* aldizkariaren sorta bat eta urte osorako *Kronikalari* izatearen bazkidetza bat. Hori horrela izanik, gertatu liteke irabazlea dagoeneko *Kronikalari* izatea. Hori gertatzen bada, *Kronikak* datorren urteko bazkidetza ordainduko dio pertsona horri. Beraz, 2021garren urtean ez du kuota ordaindu beharko.

Hainbat aholku, panpinaren eskulana egiteko

Lehenik eta behin, komeni da Olentzero, Mari Domingi edo biak egingo diren erabakitzea. Ondoren, irudikatu behar da ea panpinaren nondik norakoa zein izango den. Horretarako, hainbat iturri kontsultatu daitezke: pertsonai horien argazkiak, ipuinetako irudiak, edota filmetako karakterizazioak. Edo, bestela, norberak sortu dezake bere panpin propioa, inolako erreferentziarik gabe. Gero, materiala bildu beharko da. Gogoratu birziklatutako edo berrerabilitako materialarekin egin diren panpinak baloratuko direla. Eta, azkenik, lagunekin, familiakoekin edo nahi den konpainiarekin bildu



Etxean eduki daitezkeen materialekin egindako Olentzero.

eta martxan jartzeko unea helduko da, ondo pasatzekoa. Noski, gogoan izan, eskulana amaitzen duzuenean, argazkia *Kronikari* bidali behar diozuela.

Olentzero egin daiteke astoa alboan duela, eserita, zutik, abere guztiekin, opariekin... nahi den eran. Bere aldetik, Mari Do-

mingi ere horrelaxe egin daiteke. Eta denbora dutenek, biak ere egin ditzakete, eta bi pertsonaien argazkia bidali.

Modu horretan, panpin horiek etxean dituzten herritarrek poztasuna emango diete Olentzero eta Mari Domingiri, abenduaren 24an opariak uztera

Urumea Bailarako etxe guztietara joaten direnean. Gainera, urte arraroa izan da aurtengoa eta entretenitzeko aukera ematen dute horrelako dinamikek.

Beraz, parte hartzea animatzen zaituztegu *Kronikako* lan-gile guztiek, ziur ondo pasako duzue eta! **K**

Euskal Pizza
Eskaintza berezia
margarita pizza
txikia + oilasko burgerra
barbakoa saltarekin
9.95€
Aparatxo osagai bakoitzak 0.55€
Asteleneretik larunbatara igandera
18:30-20:00 18:00-20:00
943 333 373
Eskaintza baliagarria ordutegia-
ren murrizketa amaitu arte

gse
Asesores
Zorionak
eta urte berri on!
Gudarien plaza, 13. Hernani
Telefonoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

HATOR
AHOLKULARITZA
Gabon zoriontsuak
eta urte berri oparoa
opa dizkizuegu!
Andreale, 60. Hernani
Tel: 943 55 43 12
www.hatoraholkularitza.net

ikusi-makusi
Eguberrietako
larunbat arratsaldeak
irekita
facebook.com/ikusimakusi
instagram.com/ikusimakusiherani
Nagusia, 7. Hernani
843 63 04 69 634 607 099

Gabonetako menuak prestatzeko hainbat ideia, eta etxeko txikiak entretenitzeko, beste hainbeste

Gabonak gerturatzen doazen heinean, umeez gain, helduak ere askotan «urduri jartzeko joera» izaten dute, batez ere anfitrioi direnak. Hori dela eta, hona hemen gabonetako menuak osatzeko lau ideia.

URUMEA MENUA

Gabonak gerturatu ahala, askoren zalantza izaten da, zer prestatu. Anfitrioi direnak, badirudi «erresposabilitate» gehiago dutela, menua prestatu behar baitute, besteak beste. Hori horrela, 4 menu buruzko ideiak helarazi ditu Kronikak, hauek baliagarriak izan daitezke agian zeure menuarekin inspiratzen laguntzeko, eta familiako kideak aho zabalik uzteko. Guztira, lau menu daude, hala nola, indioilar menu tradizionala, labean egindako arraina, labean egindako haragi errea eta azkenik gabonetako menu begetarianoa.

Indioilar menu tradizionala

Hasteko, aperitiboak: mahai erdian itsaski pixka bat jarri, zuen familiak nahi bezala. Adibidez, zentollo edo idi betea zerbitzatu dezakezue, eta otarrainxka batzuk *whisky*an, gisatuak edo labean eginak. Sarrerakoa: gure lehen iradokizuna porru, patata eta udare krema da, arina eta goxoa. Plater nagusia: aipatu moduan, indioilarra, izan ere, hau da gabonetan jartzen den plater ohikoenetako bat. Postrea: etxean egindako arrautza-flana eta gabonetako izozkiak, elur forman, etxeko txikiek ere goza dezaten.

Labean egindako arraina

Aperitiboak: hasteko, foie eta almendrazko bonboiak eta pizazko mokadu biribilduak, oso egokiak izan daitezke menu honetan. Sarrerakoa: aguakate eta

otarrainxka txikiak, dibertigarriak eta zapoetsuak. *Trifle* formatuan jateko eta gabonak hemen daudela sentitzen hasteko. Plater nagusia: bigarren menu honetarako, lupia izan daiteke plater nagusia, hau gatzetan izanik. Postrea: etxeko turroiak ezin hobeak dira janari tradizional hauek errematatzen.

Labean egindako haragi errea

Aperitiboak: zapo-brotxetak eta tomatetxoak, oliba originallak *villarroy* erara. Sarrerakoa: ondo kontzentratutako salda, gabonetako zapo guztiarekin, ezin hobe da plater nagusira pasa aurretik jatekoa, hain zuzen. Plater nagusia: familia bileretarako errezeta perfektua, haragia. Garrantzitsua izan ohi da, kalitatezko pieza bat hautatzea, gero labera sartzeko. Postrea: Gabonetako zuhaitz forma duten hojaldre eta nutelaz egindako postrea, adin guztietarako balio du.

Gabonetako menu begetarianoa

Aperitiboak: askotariko humusak egin daitezke: dilistak, aguakatea, baba hanous edo mutabal bat, etxeko ogiaren tostetan igurtzeko. Sarrerakoa: sarrera gisa, krema begetal bat prestatu daiteke, arina eta denek gustukoa. Plater nagusia: barazki lasagna begetarianoak familia osoarentzat aproposa izan daiteke, zapoetz betetako platera da eta betegarria gainera. Postrea: olioeko polboroiak, beganoentzako ere jangarriak dira mota honetako postreak. **K**



Forma ugari egin daitezke jakiekin, gabonetan haurrak entretenitzeko eta gustura jateko.

Etxeko txikiek ere, gabonetako otorduez gozatzeko hamaika ideia

Errutina aldaketa haundia izaten dira gabonak txikientzat. Horiek modu egokian elikatzeko eta entretenitzeko gomendio batzuk hemen.

URUMEA TXIKIENTZAT

Haurrak, gabonak datozenean, urduri jartzen dira, azkenean haurrei zaila egiten baitzaie errutinak haustea, batik bat txikienei. Argi dago, momentu askotan deskontrolatu egiten direla, urduritasuna dela medio. Gabonak emozio ugari uneak dira, eta askotan zaila da umeentzako menuak prestatzea.

Hala ere, badago haurrak entretenitzeko modurik, janariarekin egindako formekin.

Sarrerako jakiekin adibidez, hainbat ideia daude, hala nola, moztu kanapeak izar edo bihotz formekin. Zirkuluen forma duten pastak moztu, eta egin aurpegi irribarretsuak ketchup, marmelada edo maionesarekin...

Plateretako dekorazioa ere oso garrantzitsua da, haurren interesa pizten baitu honek.

Egin daiteke adibidez, perretxiko entsalada bat, plateraren oinarrian letxuga, gainean 3 edo 4 'perretxiko' egin oilas-koarekin, eta gaztarekin adibidez, txano moduan jarri, eta mahonesarekin puntutxoak ere egin daitezke.

Bigarren plateraren, saltsekin jokatu daiteke, gabonetako zuhaitzak irudikatuz, kanpaien formak eginez, bolak, edo izarrak. Horretarako erabili daitezke ilarrez, azenarioz, erremolatxaz edo beste barazki osatutako krema bat.

Patata purearekin ere egin daitezke hainbat marrazki, adibidez, elurretako panpina, honi begiak jarritz, sudurra, ahoa eta bufanda.

Haurrek gustuko izan ohi dute azken platera, hau da, postrea, eta plater honi nolabaiteko forma edo irudia ere emateko hainbat ideia daude. Adibidez: Brownie edo

txokolate tarta, gabonetako zuhaitz gisa moztuta; Elurrezko panpina formako izozki-bolak; Erretenak egin, erdiaren erditik ebakita.

Gainerako otorduak, «arinak» izatea gomendagarria

Etxeko txikien errutina oso garrantzitsua izaten da, azkenean ohiko ordutegia ahalik eta gutxien aldatu beharko litzateke. Baina gabonetan hori lortzea oso zaila denez, otordu eta afari garrantzitsuak egin aurretik mokadu arin bat eman diezaiokegu. Egundorietan, gomendatzen da gainerako otorduak oso arinak izatea, kaloriak, gantzak eta azukreak orekatzeko. Otordu arinak egin daitezke, barazki eta landareak erabiliz, zerealekin edo lekaleekin (zopak, belardiak, entsaladak, arroz zuria, gaztadun pasta, lekadunak barazkiekin).

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
Iparru Sukaldeak

iparru
sukaldeak

IBARLUZE POLIGONOA, 7 - HERNANI - T. 943 556 760
WWW.IPARRASUKALDEAK.COM

EMAKUME, GIZON ETA HAURRAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI
EGUBERRI ON!!

IRUBIDE JATETXEA

Zorionak eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Urtea amaitzeko Aizkorri eta urte berriari ongi etorria emateko, Adarra

Bizitako pandemiaren eraginez, hazi egin da mendiko afizioa. Hala ere aspalditik datorren kontua da gailurrak igotzearen ohitura, urtea agurtzeko zein berriari ongi etorria emateko. Eta Urumea bailaran badira, beste hainbat ibilbide, gabonetako oporretan egin daitezkeenak, hain justu.



Urtero, urtea ondo hasteko asmoz, askok Adarra igotzeko aukera hautatzen dute. Argazkia: Mendiriz Mendi.


URUMEA MENDIA

Urte berri egunean, ohitura izan ohi da Adarra puntara igo eta bertan, Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldeak prestatutako hamaiketakoaz gozatzea, jaitzialdia indarberrituta egiteko. Hala ere, aurten bizi dugun pandemia honek, hainbat aldaketa ekarri ditu gure egunerokotasunean, eta mendian ere halaxe gertatu da.

Izan ere, Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldea, aurten ez da Adarran egongo, egoerak hala behartuta, eta honakoa jakinarazi dute, «ezin izango dugu urtarilaren leian Adarrako saldarekin urte berria ospatu». Adarrako ekintza ez ezik, beste hainbat irteera eta paseo ere bertan behera utzi dituzte, esaterako «Aste Santuetako bi-daia, eta beste hainbat ibilaldi».

Adarrara urtarilaren leian

XX.mende hasieran, Fortuna Donostiarrako mendizale talde batek urteberri egunean Adarrara igotzeko ohitura hartu zuen, eta 1924. urtean antolatu zuten



Beste hainbatek berriz, urtea amaitzeko aitzaki gisa, Aizkorri igotzen dute. Argazkia: Mendiriz Mendi.

lehen aldiz urteberriko Adarrako mendi irteera. Orduz geroztik, urtero bailarako herritar askok horretarako erreserbatuta daukate urtarilaren 1a, Adarrara igo, tontorrean hamaiketa ko eder batez gozatu, eta urtea

indarrez hasteko asmoarekin. Lehen aldiz, 1924garren urtean egin zen irteera hau, baina ohitura honen jaiotza data zehatza ezezaguna da. Ekimenaren lehenengo hamarkadetan meza ere izaten zen gailurrera iritsi

orduko, Balentxi apaizaren eskutik, baina dagoeneko ohitura hori goizeko hamaiketako brindisak eta hamaiketakoak ordezkatu du.

Baina aurten tamalez, urtero egiten den usadio hau, hurrengo

«Ezingo dugu urtarilaren leian Adarrako saldarekin urte berria ospatu»

urterako uztea erabaki du Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldeak, «herritarren segurtasuna bermatzeko asmoz».

Aizkorri, urtea amaitzeko

Batzuk urtea ederki hasten dute, beste batzuk ordea ezin hobeto amaitu. Izan ere, beste ohitura bat izaten da abenduaren 31n, Aizkorri igotzea. Adarra baino altuagoa da Arantzazu inguruko mendi hau, 1523 metrokoa hain zuzen. Hemen ere, mendizaleek goiz igotzen dute gailurra, hamaiketako Urbian egiteko. Urumea Bailarako herritar asko izaten dira urte amaieran, Aizkorri. Bizi dugun egoerak gainera, neurriak ekarri ditu mugikortasunari dagokionez, eta kasu honetan, Aizkorri igotzeko, Arantzazutik egitea gomen datzen da.

Urtea amaitzeko eta hasteko modu ezberdinak daude, hala ere, gabonetako oporrak, mendi bueltak egiteko aprobetxatu daitekeela azaldu du Mendiriz Mendi Elkarteak. «Bide politak dauzkagu, Hernanitik oinez aterata ere. Eta Urumea inguruan baditugu igotzeko makina bat mendi, hala nola, Buruntza, Urdaburu eta Onddi... eta mendi hauen inguruetan dauden ibilbide lasai eta eder ugari ere badaude. Bizi dugun egoera honetan ez da gauza xamurra, musukoarekin mendira joatea. baina tira, ez dago beste irtenbiderik».

Eguberri on!!

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 665 735 224
20120 Hernani

JOMER

EDARRITEGIA

WAGALL-DE

Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

sulabe
Ogirik berceña

Eraman zure mahaira Sulabe ogia

www.sulabe.com

Irrigoenea Okindegia. Hernani
Tel. 943 331 725

Peña Okindegia. Hernani
Tel. 943 552 398

Sulabe. Hernani
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zuri-zuri, Adarra

Astebete baino zertxobait gehiago falta da neguan sartzeko, baina jadanik bota zuen lehen elurtea, abenduaren 5eko asteburuan, eta bailarako hainbat mendi zuriz jantzi ziren. Izan ere, pasa den astean, 500 metro-ra elurra egin zezakeela iragarrita zegoen, eta halaxe gertatu zen.

Euskalmetek alerta horia iragarri zuen, EAera Atlantikoko borrasa zabal eta sakon bat iritsiko zelako, «Artikoko aire hotza dakarrena» hain zuzen, eta, ondorioz, denboraldiko lehenengo negu giroa izan genuen pasa den asteburuan. Kostaldeko olatu haundiez gain, temperaturek behera egin zuten nabarmen, prezipitazioak ugartu ziren, kazkabar ekaitzak ere eta haize gogorra ibili zen.



Zuri kolorez zegoen Adarra pasa den asteburuan. Eta bailarako herritar batzuk, aprobetxatu egin zuten mendira joateko, argazkiak ateratzeko...

Honelako eguraldiekin, Jaurlaritzak gomendioak

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak larunbat arratsaldean eta igandean mendirako irteerak saihestea gomendatu zuen,

batez ere 700-800 metrotik gorako altueretan. Izan ere, egoera meteorologikoa «oso desatsegina izango zela» ziurtatu zuen, «haizea, giro hotza eta elur itxurako prezipitazioak izango zi-

rela» argudiatuz. Gainera gehitu zuen, «tontorrean kantitate esanguratsuak pilatzeko aukera ere bazegoela, eta arriskutsu izan zitekeela mendira joatea».

Hala ere, pasa den astebu-

ruan Urumea bailarako hainbat herritarrek elurtea eta asteburua aprobetxatu zuten, mendia igotzeko, trineoan ibiltzeko edo etxeko txikiekin elur panpinak egiteko. **K**

«Zuri-zuri zegoen Adarra mendia, pasa den asteburuan»

Mendiko afizioarekin batera igo da zabor kopurua

Azken urte honetan izandako pandemiak harreman sozialak mugatu ditu, beste hainbat neurri murriztaileen artean. Horrek, mendiko afizioa haunditzea eragin du, eta mendietako zabor kopurua nabarmen haunditu da. Honen harira, Mendiriz Mendik, herritarrei dei egin die, mendira joatean, etxetik poltsa bat eramateko eta ikusten duten zaborra biltzeko.



Mota askotako zaborra aurkitu daiteke bailarako mendi eta inguruetan.

URUMEA MENDIA ETA ZABORRA

Aspalditik izan da ohitura Euskal Herrian, eta munduko beste hainbat txokotan, mendi buelta bat egin, eta ondoren bapo bazkaltzea. Hala ere, martxoan etorri zen pandemiak geroztik, nabaria izan da, mendiko afizioa areagotu egin dela, eta honekin batera, haunditu egin da mendian pilatzen den zabor kopurua.

Orain arte pilatzen zen zaborra mendietan, baina ez orain moduan. Nabaria da, zabor gehiago dagoela aurtien mendietan, pasa den urtearekin alderatuz.

Mota askotako zaborra aurkitu daiteke, hala nola, maskari-

lak, tabako paketeak, latak, plastikoak, paperak, eta beste hainbeste.

Herriaren laguntza

Zaborrarekin gertatzen ari den arazo hau konpontze aldera, Mendiriz Mendi elkarteak, «bilketa bolondres kanpaina» bat jarri du abian. Hau da, «bakoitzak etxetik, poltsa bat eraman dezala mendira, eta ikusten duen zaborra etxetik ekarritako poltsa horretan sartu dezake. Eta ondoren, bildutako zabor guzti hori, dagokion zakar ontzira bota».

Mendiriz Mendik azaldu du, herritarren laguntza beharrezkoa dela «mendiak txukun eta garbi mantentzeko».



Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

f www.facebook.com/urratshernani
@ urratshernani@gmail.com

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Aurtengo Gabonei
elkartasuna eskatuko diegu
eta urte berriari
osasuna.
Urratsen partetik:
"Zorionak
eta urte berri on!"



Arratsaldez irekiko dugu larunbat hauetan:
Abenduak 19 eta urtarrilak 2

Aspertzeko astirik ez, Urumea Bailaran antolatu diren tailerrekin

Askotariko gaiak landuko dira Hernanin eta Astigarragan prestatu dituzten ikastaroetan: tatuaje diseinua, parkourra, orientazioa, artisau-jaboiak, argazkilaritza edota arteterapia. Abenduan eta urtarrilean egingo dira, eta aurretik izena eman behar da, tailer bakoitza antolatu duen Udalaren edo elkartearen plataforman.

ASTIGARRAGA-HERNANI TAILERRAK

Urtea ezin hobe amaitzeko Hernaniko eta Astigarragako udalek hainbat ikastaro antolatu dituzte herritar guztientzat. Abenduan eta urtarrilean egingo dira eta aforoa mugatua denez, aldeztu aurretik izena eman behar da. Gainera, bi herrietako gaztelekuetan ere egongo da zeregina egun hauetan. Bere aldetik, Hernaniko Dobera Euskara Elkarteak ere prestatu du abendurako plangintza, eta hamaika dinamikekin agurtuko du urtea. Euskal zumba edota buruarinen tailerra egingo dituzte, eta ipuin-kontalariarekin hitzordua ere jarri dute. Beraz, ez da aspertzeko astirik izango hilabete horietan.

Hernaniko tailerrak zertxobait beranduago hasiko dira, abenduaren 28an. Astigarragan, berriz, dagoeneko egin dute argazkilaritza ikastaroa, eta beste hainbat egingo dituzte abenduaren 17tik aurrera.

Arteterapia eta eskulanak, Astigarragan

Abenduaren 9an eta 10ean argazkilaritza tailerra izan zen Astigarragan, Alfredo Ruizekin. Hurrengo, eskulanen ikastaroa izango da, hilak 17an. Doakoa da eta aurretik izena eman behar da zilegieskola@aek.eus edo Erribera kulturgunean. Goizeko 09:30ean izango da eta Itziar Ruizek gidatuko du saioa. Ho-

rrer gain, arteterapia ikastaroa ere izango da abenduaren 19an, Kontxaenean. Hori ere doakoa da eta izena eman behar da aztifemiak@gmail.com helbidean.

Bestalde, Apeztegi plazan ohe elastikoak jarriko dituzte abenduaren 28an, 29an eta 30ean. Horretarako, txartelak aurrez hartu behar dira Erribera kulturgunean, astelehenetik aurrera. Egitasmo hau ere doakoa da, eta bi txandatan egingo da: goizeko 11:00etatik 14:00etara bitartean eta arratsalde, 16:30etatik 20:00etara.

Gaztelekuak antolatu dituen ekintzei dagokienez, abenduaren 19an Santo Tomas eguna ospatuko dute eta hurrengo egunean xake topaketa izango da. Hala, hilak 23an *hi selfie* joko dibertigarrian arituko dira herrian barrena, zumba ikastaroa izango dute abenduaren 27an eta urtea borobiltzeko, kamisetak kustomizatuko dituzte hilak 30ean.

Bost ikastaro Hernanin, abenduan eta urtarrilean

Guztira 5 tailer antolatu ditu Hernaniko Udalak, herriko hainbat gazteekin elkarlanean. Nera-beentzat zuzendutako ikastaroak dira, 12 eta 17 urte bitartekoen-tzat. Batzuk abenduan egingo dira eta beste batzuk, berriz, urtarrilean. Saio guztiak doakoak dira, baina aforoa mugatua da eta, beraz, aurrez izena eman behar da. Ikastaro guztietan izenematea abenduaren 16an amaituko da, hau da, datorren asteaz-



Joan den urtean sormen tailerra egin zuten Uxue Bereziartua hernaniarrarekin.

kenean. Interesa duenek hauxe dute apuntatzeko esteka <https://linktr.ee/hgazteria>.

Abenduaren 28an, 29an, 30ean eta urtarrilaren 4an eta 5ean tatuaje diseinu tailerra izango da Iñaki Urruzolarekin. Goizeko 11:00etatik 12:30etara bitartean izango da, eta tatuajeak nola diseinatu ikasiko dute bertan. Egun horietan ere parkour ikastaroa izango da, Raul Mihai-ekin, arratsaldeko 17:00etatik 18:00era bitartean.

Antolatu duten beste dinamika bat orientazioko tailerra da. Hilak 28an eta 29an egingo da, Patri Espinarrekin, goizeko 09:30etatik 12:30etara bitartean.

Bestalde, argazkilaritza gustuko duten horientzat, Nagore Legarretak argazki kamera tailerra egingo da. Hori bi egunetan izango da: urtarrilaren 4an 16:00etatik 18:30etara bitartean; eta abenduaren 5ean, berriz, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:30etara.

Azkenik, Ana Velez hernaniarrak artisau-jaboiak nola egin ikasteko ikastaroa emango du. Abenduan 30ean izango da, 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Aipatu moduan, gaztelekuak ere plangintza zabala antolatu du abendurako. Asko dira prestatu dituzten ekintzak, baina tailerrak eta irteerak hauexek dira: batetik, serigrafia tailerra,

abenduaren 18an; bestetik, Txuri Urdinera irteera, abenduaren 23an; eta, azkenik, *scape-room* saioa Donostian, hilak 29an.

Doberak ere jarduerak egingo ditu gabonetan

Hainbat aukera eskaini ditu Dobera Euskara Elkarteak abendurako. Buruarinen tailerra, euskal zumba, ipuin kontaketa, eskulanen tailerra eta Saharako elkartearen eskutik, bertako musikarekin gozatzeko eta instrumentuak ezagutzeko aukera izango da. Egunak zehaztu gabe badaude ere, datozen egunetan emango dute horren berri. Izenematea ere zabalik egingo da. **K**

Zorionak eta urte berri on!

MK estudioa ileapaindegia

Andre kale 48, atzealdea
HERNANI
943 55 20 81

Mahuka

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

ANDRE KALEA, 28 BEHEA
HERNANI
943 333 639

ESPECIALISTAS EN MARISCO

MARISCOS HERNANI

Eguberri on!

Javier Juanisti
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
f mariscos hernani

PODOLOGIA
NEREA URDALLETA GUERRA

ONDO IBILI GABONETAN

943 55 60 13
KALE NAGUSIA 16,
ASTIGARRAGA

Olentzeroren eskutitzerako aukera paregabea!!!

HAURRAK

TXORI TXIKIA ETA KROKODILOA
(2018)
Ipuin senegaldarra

15€, bazkideak 12€




MOZOLOAREN BIDEA
(2016)
Ipuin armeniarra

10€



ZOZOMIKOTEAK
(2015)
Urietako artzain batek kontatuta...

10€



OILAR TXIKIA
(2017)
Margotu, marraztu, pegatinak itsatsi, irakurri eta idatzi!

2€



HELDUAK

AXERI DANTZA DVD
(2018)
3 filma + parte hartzaileekin elkarrizketak.

5€



BURBUNAK ETA ETSAYAK DVD
(2015)
Hernaniko natura eta ahozko ondareari tiraka.

5€



HESOLA
(2017)
Hesolaren kanta komikian bihurtuta

2€



ALDABA JOKA
(2003)
Hernani; XX. mendeko ahozko historia txikia

2€



ERRITMOA, KAZETARIAREN BATUTA
(2012)
Kronika

2€



DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

Larramendi 11 behea.
Hernani
943 33 27 99
dobera@dobera.eus

RIOJA TABERNA

Kale Nagusia, 6. Hernani

2020 urtea ere pasa zaigu...
Urte berri on guztioi!



apaindura
OIHALA
hogar

Zorionak eta eguberri on!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87 HERNANI

Eguberri on!



Andre kalea, 32. Hernani
943 55 16 43

UKERDI

mertzzeria
lentzeria
hariak
artileak

Playtex - Avel - Dim

Emakume eta gizonentzako
azkipo arropa eta pijamak

EGUBERRI ON!

Kale Nagusia, 51 - 943 551 322

TTILIN * TTOLON * MAITE

Gabon berezi hauetan
elkar zaindu gaitezen

Txirrita, 10. Hernani

943 55 56 94

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Urte berri on!!!!

Oikelaga 2. Tel. 943 33 59 08

URALDE
ITURGINTZA

K21
KALITATEA

50. URTEURRENA
1970 - 2020

ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
ZORU BERO EMALEAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA

E
BILVINTZITIK DUTARA

Mañe y Flaquer, 5 behe 1 HERNANI • Tel 943 55 33 55 • uralde@uraldeiturgintza.com

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

50 urte bete ditugun honetan, bezero guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu, bide hau gure ondoan egiteagatik. Mila esker!

Ez da urte xamurra izan, badakigu hori gure artean.
Ordu gehiegi pasa ditugu sartuta etxean, mugaturik
bizitza egitea kolean. Denok batera ikasi dugu bata
bestea zaintzean eta aurrera egin dugu elkarlanean.
Urte berriari ongi etorria ematean, utziko dugu, urte
madarikatu hau atzean.

Kronika egunero zuekin egiten delako

Eskutik eskura,
Urumeatik Urumeara

Kronika

DO
BE
RA
EUSKARA
ELKARTEA